

J.B. Archu

**LA FONTAINAREN
ALEGHIA BERHEZIAK,
NEURT-HITZEZ**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio informatiko honen egilea: Ricardo Gomez
Lopez; E.H.U.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00552.htm>

LA FONTAINAREN,
ALEGUIA - BERHEZIAK,
NEURT-HITZEZ
FRANZESETIK USKARARA ITZULIAK,
J.-B. ARCHU,
Skolazaliak.
LA REOLEN,
Pasquieren, moldeteghian,
1848.

AITZIN-BEGHI

Zertako Uskarara itzul La Fontainaren aleghia berheziak?—Galdeghin zautaden ene lana hasten nuelarik. Beharbada oraino ere ber galdoa eghinen daute, ni irakurtu baino lehen. Hau da beraz ene errapostia, bardin eztuket horen eghiteko tenorerik irrakurtua nizatzenian.

La Fontainaren aleghia zenbaiten Uskarara itzulzian, ene lehen atsia izan da, Franzia guziak alxatzen duen ghizon horen ohizpenanaren alxatzia Uskal-herriaren erdian;—bigherrera aldiz, ene Herritaren gogoaren deitzea aleghiatsu paregabeko horen lanetara; lan hoien zenzu eta zuhurtze handiaren her honkierazitea; holaxet franzes minzagia ikhas ahal dezeten aisago.

Hortako zerbitzatu niz La Fontainaren lanaz. Hau da obra honen iruzkibeghia. Honen itzalian ezarri ditut ene uskarazko neurt-hitzak.

Franzes eta Uskara beghiz beghi ezarrier, jarraikitzen zaie hitzteghi uskalduna, aitzindari joaiten zerelarik uskaldun minzo gainen hatsarebat.

Hatsare hau eghina da Uskara eztakienezat.

Franzian nahibada sorthurik diren, badire hanitz Bortu iphar aldeko izkerrian zoinek bere anaien, bere aitzindarien minzagia enthelegatzen eztutenak, Nolaz hori?— Zeren eztuten bi minzagetan izkiribaturik diren libururik.

Erranen daute, arauz, Errearoaren 1833 eta 28-ko legheak zabaldu duela muga berribat ikhastarzunari, eta uskal-herriko ikhaserazlek behar dutela bere skolierer franzasera erakutzi.— Behar bada bai.— Bainan nola erakhuts ahal diote?— Eztute uskaldun eta franzas gramatikarik, eztute-uskaldun eta franzas hitzteghirik.

Eghia da edireiten direla uskal-herriko skoletan hitz batzu uskaraz eta franzasera, franziako *conjugazione*areki. Hatu hoieki dute oraiartino ikhassi behar ukhen franzasera Etxeparen, Oihe-narten, Spondaren, Belaren, Garaten, Harispere-n, Dassanzen herritarrek.— Oi zoin hurrun den hitz bakant batzuen jakintazunetik hitzen minzatzeko behar bezala jostiala!

Uskal-herriko haurrek beharlukete, hola da ja ene ustea, *habil-enekinkobat*, gramatikabat, zoinekin ikhas ahal dezen berek Franzas hitzkuntza.

Gramatika hori haur hoi en eskuetara hel artino, uste dut aleghia igorten deitzedan hoiek aisaeraziren dereiela Franzesaren ikhastia. Hola uste dute ere ene lana ikhussi duten guziek. Hanbat hobe ezpalin baghia enganatzen!!

1

BELIA ETA HAXERIA

Zuhain baten kukulan jaririk,
Bele jauna zagon gaznabat moskoan.
Haxeri jaun usainaz deithurik
Ghelditu zen zuhainaren ondoan.
Hitz hoiek diotzu hegaltariari:
Egun hon, agur, gure jaun beliari!
Zoin pollit, zoin eder den!!
Eghiazki, zure botzak zaiaren
Balinbadu iduria,
Bortutan diren ihizi ederrenen
Zu zira erreghia.
Beliak, hitz hoietzaz hanturik,
Bere botz ederra erokutzi nahidu;
Mosko handibat zabalturik,
Gazna lurerat uztendu.
Haxeriak, gazna atzamanik,
Beliari erran zuen ordian:
Jakinzak, jauna, lausenkaria
Hari beha denaren khostuz mundian,
Bethi danik izan dela jankidia.

Ene lezioneak, arauz, balio-dik
Gaznabat segurki.
Bere tontokeriaz ahalketurik
Beliak, berantxki,
Zin eghin umen zuen
Ghehiago ezutela atzamanen.

2

IGHELA IDIA BEZAIN HANDI JIN NAHIDENA

Ighelbatek idibat ikhussi zien;
Handixka zela zaikon iduritzen.
Araultzia beno ighela handiago ezen.
Hedatzen da, hantzen eta loditzen,
Loditarzunaz aberea gahait ahal dezen.
Soizu onxa, ahizpa, erraiten zien;
Aski deia? erradazu, eniza helzen?
—Ez, ez —Oraï? —Etzia huillantzen.
—Soizu oraï? —Ezin zia. Ighela da arahantzen
Eta gaixoa behala lehertzen.
Ighelaren iduri hanitz bagutuzu
Ghiren beno handiago jin nahi gutuzu.

3

BI MANDOAC

Bi mando zoatzen bidian;
Batak olho bestiak diru bizkarrian.
Diru zuen mandoa, buria txutirik,
Zango arhinez bazoan,
Txinxila iharausten zuelarik.
Ohoinek, bidiala deithurik
Diruaren zeiniaz,
Eta haren mengoaz,
Mando diruduna dute baratzen,
Eta kabasturutik atzamaiten.
Mandoak, bihurtzen zelarik
Ganibet txistaz kolpaturik,
Inzirikotxez zioen:
Oi! hau da bai eni hitzeman zeitena?
Ene laguna
Minik gabe badoa:
Ni niza erorien
Eta hemen hilen?
Adixkidia, lagunak derio erraiten,
Eztuzu ez hon bethi

Jaun hand' izatia:

Eihera zainbat, enia bezala,

Izan baliz zure nausia

Etzinate oraï hain eria.

4

OXOA ETA HORA

Oxobatek etzuen
Ezur eta larru baizik,
Zeren horetan beitzen
Ardi beghirazale honik.
Oxo horrek buru du eghiten
Hor ghizen eta azkarbatekin,
Bere bidetik jalkiarekin.
Morde oxo horek, gogo honez.
Hortz kaldubat eman liozu,
Bena bere indarer fida eztuzu,
Alanhora azkar zelakoz hortzez.

Buztana sabel pian,
Aphalzez jiten da hora gana;
Han sartzen solazian,
Bai eta galtazen
Zoin ghisatako den haren jana,
Nolaz hain ghizen den.

—Nahi baduzu,
Jaun ederra, izan ni bezain ghizen,
Ahal dukezu,

Erraiten dero txakurrak;
Utzatzu behala oihanak,
Eghiazki, onghi dukezu eghinen.
Han zure lagunak gossez tuzu hilzen,
Mehe eta debru txar dituzu.

Zer, Jainko jauna! jateko poxibaten
Bilhaiskan ari beharduzu!!

Ori, behala zato eneki,
Biziko zirade hobeki.

—Zer behar duket eghin? dio oxoak.

—Deusik kasik, erraiten dero horak,

Txanpa eghin makila duten guzier,

Eta athez athe joaiten diener;

Balaka etxekoak, balaka nausia;

Holatxet jateko zuk dukezu asia,

Oilla eta urzo ezurrez.

Bozturik oxo hau hasten da nigarrez.

Bazoatzalarik

Horaren lephoa aghertzen da zaurthuriz.

Zer duzu hor? oxoak erraiten du.

—Deusere. —Zer! deusere? —Gaiza guti.

—Bainan oraïno? —Nikezu estekak zaurthu,

Beharbada. —Estekatzen zutie?

Noat nahi joan ahal etzitie?

Egunaz, gauaz eta bethi?

—Ez bethi ez, bena zerdu horek eghiten?

—Zer eghiten dien?

Hanitz, jauna, hanitz horek eghiten dizu.

Zure apairu ederren mengoa enuzu.

Ordian oxoa lasterrez joan zen

Eta oraïdano lasterka da ibilzen.

5

BIGA, AHUNZA ETA ARDIA LEHOAROKIN

Bigak, ahunzak eta hoi en

Ahizpa ardiak,
Lehoareki behin
Hitzeman zuten
Ezarteko botin
Bere galziak
Eta irabaziak.

Oreiñbat atzamana zen izan

Ahunzaren zephoan.
Bere lagun er ahunzak
Igorten du berria.
Lagunak jin ondoan,
Lehoaren aztaparrak
Eghiten du kontia.
Lau ghira, dio lehoak,
Jateko honen.

Lau zathitan oreiña du ezarten,
Eta lehen puska bere beghiratzen.
Hau enia da, deie erraiten,

Zeren bainiz erreghe lehoa deitzen,
Nihork hortakoz eztu hitzik erranen,
Bigherrena zuzenez enia dago,
Ziek beno bainiz azkarago.
Pherestiena bezala, hirurgarena nahidut uken;
Eta nihork ere laugarena badu honkitzen,
Behala dut ithotzen.

6

HIRIKO ARATHOA ETA KANPOKO ARATHOA

Behin hiriko arathoaren etxera
Kanpoko arathoa kumitatia izan zen
Txorizko apairu batetara,
Biak adixkide hon beitziren.
Turkia oihalbaten gainen
Apairia hedaturik izan zen.
Eztut erranen zer bizia
Adixkide hoiek eghin zuten.
 Hona zen apairia
 Deusit menx etzuten.
Barazkariaren erdian
Amurratiak izan zian.
Borthan herox bat dute enzuten;
Behala adixkide hoiek barnia husten,
 Eta laster eghiten.
 Herotxa da ixiltzen.
Akaba dezagun apairia,
 Dio hiritarrak.
—Egunko badizugu asia,

Dio kanpotarrak,
Bihar ene etxera zira jinen,
Ezteizut hain apairu ederra emanen.
Bena herotxik eztuzu enzunen.
Adio arren, enuzu mengoa plazeren
Loxareki hartzen direnen.

OXOA ETA AXURIA

Azkharenaren arrazoa bethi da hobena
 Ikhussiren dugu berhala.
 Axuribat ari zen edaten
 Errekabaten urretik.

Oxobat barurik
 Hara da jiten,
 Gossiak deithurik.
 Ahalkegabia,
 Zertako ene edaria,
 Dun thurbusten?
 Dio oxoak bere khexian,
 Zehaturik iz izanen.
 —Jauna, dio axuriak,
 Eztitiela, othoi, egon samurrian,
 Eztitit urrian hoiñak;
 Soizu, banoazu edatez
 Hoghei urhatxez
 Zu baino beherago,
 Eta zure edaria,
 Segurki duzu eghia,

Eztit niholere thurbusten.
Thurbusten dun, dio gorago
 Aberre gaitz horrek,
Eta badakiñat joanden urthian,
 Zuhain baten azpian,
Nitzaz hinzala gaizki minzaten,
—Nolaz?... Enunduzun sorthurik,
Ene ama orano dit egoskitzen,
 Erraiten dero axurik.
—Hik ezpadun erran, hire anaiek—
Eztit anaierik. —Beraz hire askaziek.
Enaizie hanbat maithatzen
Ziek, zien arzainek,
 Eta horek;
Badakiñat, bena nun mendekaturen.
Ordian oihaniaiat du eramaiten,
Eta hortz ederrez han jaten.

8

HARITZA ETA KANABERA

Kanaberari haritzak

Behin erran zeion:

Ezteizu zuri Gainkoak

Eman sortze eta indar hon.

Erreghexopitbat

Zuretzat

Karga handia duzu.

Naturak oghen dizu.

Aizen haur txipiennek,

Urrari irri eghinerazlek,

Deizie buria aphalerazten.

Gure belarak, Ahuñe bezain gora,

Ekiaren leinhurak ditizu baratzen,

Tenpestak ere bai gahaitzen.

Oro zurezat ditzu hegora;

Guziak iphar zitatut iduritzen.

Oraïno sortbazinte ene osto pian,

Nonbait, ene zain hoiien artian,

Zoinez betitut bazterak estalzen,

Etzunuke zuk hainbeste minik;

Beghira zinzaket tenpestatik.
Bainan kasik bethi zira sortzen
Urraren ondoetan,
Aiziaren lurretan.

Natura zurezat ezta xuxena,
Eghiazki, baina bai amaizuna.
Zure pietate hau, dero zuhatzak,
Emaiten deizu, arauz, zure bihotz honak;
Bena ezazula ukan anxiarik
Aizen eztit zuk beno loxarik.

Baniz ere aphaizen
Enuzu ni hausten.

Oraïdano aizen kolpu izigarriari
Lerdenik etxeke duzu zuk bizkarra,
Erakutxi ere zer duzun indarra;
Bena biak ghitiën beha urhenziari.
Zutelarik hitz hoiek erraiten
Zeru zolatik khexu da jiten
Orroaz, odei sabelian
Hegoaren seme ghehiena.
Azkharena baiere gaiztoena.

Ordian

Zuhainac azkhar du etxekitzen;
Zuhatzak buria du aphaizen;

Bere indarrak dutu hegoak doblatzen,
Erroz gora aldiz aurthikitzen
Buruz kasik joiten zuena zelia
Zankoz ere bai ifernia.

9

KONSEILIA ARATHOEK ETXEKIRIK

Gathubat, Rodilardo izenez,
Hainbeste aratho zoan erhaitez,
Zoin ezpeitzen bat aghertzen hoietarik,
Guziak beitziren kasik ehortzirik.

Bizi zirenak bere xiloan
Ixil, ixila gosez zaudian;
Eta guziek, bere etxen
Erraiten umen zuten:
Rodilardo etzela gathua,
Bena onghi zela debrua.

Egunbatez urrun eta gora
Joan zelarik emaztekara,
Eta bere andria gatik
Marraskaz zagoelarik,
Aratho bizi zienak dia elhestatzen,
Xokobatetan, bere beharetan gainen.
Behala zaharrenak, suhurki,
Uste du eghinen dutela hobeki,
Lehen beno lehen Rodilarti

Ezartez xinxilabat lephoti;
Holaxet, gherlarat datenian joaiten,
Hura dutela enzunen, eta lurperat aisa eskapi-
ren.

Bakoitxak Jaun zaharrenaren
Aiphamendua du laidatzen,
Eta beste medio hoberik ez edireiten.

Xinxilaren ezartia zen gaisto.
Batak dio: ni eniz joanen, eniz hain asto.

Bestiak, nik enakike ezarten.
Elgar dute uzten, eta deusik ez eghiten.

Hanitz konseillu dut ikhussi
Ez arathoen, bena bai kalongen.
Behar da aiphamendu bat hassi?
Khorteia erakustlez da bethatzen.

Gauza behar deia eghin?
Nihor ezta edireiten.

10

OXOA MINZO HAXERIAREN KONTRA TXIMINOAREN AITZINIAN

Oxobatek zion ebaxi zaiotela
Eta haxerik, haren aizoak,
Bizi aski gaixtokoak,
Ohoinkeria hori eghin zuela.

Tximinoaren aitziniala
Jiten dira bi aizoak.

Emaiten duzte bere arazoak,
Batak hola, bestiak hala.
Kaxetan gainen izerdiz zagoen
Tximinoa; egundano ezuen
Gauza belzagorik ikhussi.
Aizoak hitzkatzen dira biziki,
Oïhuz, marraskaz
Eta debrukaz.

Tximinoak hoi en gaixtokeria ikhussirik
Diote: aspaldian zirade ezaguturik,
Ene adiskidiak,

Etziraie itzuliren botzak.
Oxoa, hik duk erran
Zerbait deierala eraman,
Nahi bada deusik eztian galdu.
Haxeria, hik duk aldiz hartu
Zer ere beteie galtatzen.
Tximinoak uste zuen
Nolako nahi erranak
Kastigatzen dituela gaixtoak.

11

LEHOA ETA ELXOA

Hurrun hebentik, hurrun elxo txarra,
Lur gorotza, zioan lehoak elxoari.
Elxoak emaiten derio gherla.
Uste duka hire erreghe izenari
Beldur dudala ukenen?
Elxoak deio erraiten;
Idia hi beno, azkharago duk,
Eta nik nahi bezala joaitenduk.
Hitz hoiek tielarik erraiten
Gherla du berehala hasten.
Lehenik egoiten da hurrunti,
Ghero bere exaia hartzen lephoti.
Lehoa kasik da erhotzen;
Ahotik gahuna du galzen.
Beghiak ari zaizko tximistaz
Eta bera dago orroaz.
Bazterrak oro dira loxatzen;
Ihizi guziak aldiz gordatzen.
Loxeria hori da
Elxobaten lana.

Ullu txar horek eztio phauzurik emaiten,
Behin bizkarra,
Ghero sudurra
Dero ausikitzen,
Eta ghero sudur zilotik zeiko sartzen.
Lehoa da errabiatzen.
Elxoak aldiz karkailotxez,
Exaiaren khexian ikhustez,
Erri du eghiten,
Berari zeren
Aztaparrez eta hortzez lehoak diren
Min eghiten.
Leho gaizoak bera du kolpatzen,
Buztanaz saihexak ditu joiten.
Airian herox eghitez
Eta sobera khexatzez,
Akitzen da eta flakatzen,
Eta lurrerat erailtzen.
Elxoa badoa botzturik
Bitoria, erraiten duelarik.
Guzier dio tutez: bitoria!
Bidian du edireiten
Ainharbabaten
Zephoa, eta han uzten bizia.

Zer deiku elhe honek ikhasten?

Bi gauza: lehena, gure exaien

Gaixtoenak

Ussu direla txipienak.

Bigherrena: Eghiteko handietarik

Jalkirik,

Txipienetan,

Hanitz alditan,

Egoiten ghirela ithorik.

12

LEHOA ETA ARATHOA

Ahal oroz mundu guziari
Izan, adi bethi zerbitzari,
Hanitz aldiz txipienak
Dituzkek sokorzaleak.

Eghia hau bi ghezur hoietan
Ikhassiren duk aisa eta bertan.

Lehobaten aztapar artian
Arathobat, lurpeti jalkitian,
Uste gabe, zen ediren.

Ihiziren erreghia
Ordian jakin zen

Norzen,

Eman zeron bizia.

Honki eghin hori etzen galdu.

Nihork sekula sinhexi lukia

Arathoaz lehoa dela behartu?

Gauza da hatik eghia.

Oihanetik jalkiten zelarik

Lehoa saretan izan zen atzamanik,

Eta sare hoietarik

Etzaitien jalki.

Hara lasterrez arathoa helturik

Hainbeste du eghiten bere hortzeki
Zoin beitu hausten
Sarearen puntia.
Indarra etra errabia
Eztia
Pazienza bezain baliatzen.

13

URZOA ET INHURRIA

Ihizi txipiagoetarik

Da beste exenploa idokirik.

Erreka argibaten ondoan

Urzobat edaten arizelarik,

Inhurribat, buria aphalturik

Urrerat zen joan.

Itsaso hartan inhurria

Igherika zabilan,

Galzera zoan bizia,

Bazterra atzaman ezpeitzioan.

Karitatez urzoak

Belhar bat derio aurthikitzen.

Belharra atzamanik inhurriak

Bazterrialat da jiten,

Eta urretik bizirik jalkiten.

Ihizlaribat aurthoxik

Hanti da igaraiten,

Eta urzoa ikhussirik,

Hilen direla pensaturik,

Emeki, emeki da joaiten.

Haren hilzera delarik isseiatzen

Inhurriak aztaletik

Du aussikitzen.

Ihizlariak burua itzulzen;

Urzoak hura du enzuten

Eta hegaltaz joaiten.

Ihizlariaren afaria

Urzoareki da hegaltazen

Eta gosia

Bera zaiko egoiten.

14

ERBIA ETA IGHELAK

Erbi bat bere ohian amexetan zen.
(Zer eghin ohian amex baizik?)
Hanitz zen erbi debeiatzen,
Triste beitzen, loxak eiharturik.
 Gente loxorrak,
 Zioen, ezta dohaxiak;
Eztiote jan poxirik ghizenzeko;
Bethi plazerik gabe, bethi lasterka,
Holaxet niz ni bizitzeko:
Eta loxaz (Gaincoak deidala pharka!)
 Eztiot eghin loik
 Beghiak zabalik baizik.
 Ezazula loxaik uken,
 Erranen deit kasko honbatek
 Loxa ahal deia uzten?
Eghiazki, ustedut ghizonek
Nik bezain dutela loxa handia.
 Hola minzo zen erbia
 Beha zelarik egoiten.
Etzakien zer eghin, anxia zen;

Osto baten itzalak edo heroxak

Emaiten zeitzon helgaitzak.

Gaiza hoietan zielarik gogo,

Azanza bat du enzuten;

Bere xiloaren ondoa

Lasterrez du atzamaiten.

Igaraiten zelarik

Putzubaten ondolik,

Ighelak urren barna dira jausten

Eta bere xiloetan gordatzen.

O! ô! dio, nik ere bester duta loxa eghiten!

Ene ikhustiaz gentiak direia izitzen!

Zer dute animale hoiek?

Gherlari handia niza arren!

Oraï ikhusten dut loxorrek

Loxor handiagoak dioztela ediren.

15

OILLARA ETA HAXERIA

Adarbaten gainean

Beha zagoan

Oillar zahar bat, mosko honekoa.

Anaie, erraiten dio, botza eziturik

Haxeribatek, hau diala hitz bakezkoa;

Eztiagu izanen ghehiago samurrik,

Jiten nuk erraitera hiri;

Eraix adi,

Besarka hezadan, berant eztezala,

Othoi, eghin behar dudala,

Jakin ezak, egun hogeia lekoa.

Hik eta hire lagunek

Ziren eghitekoak eghitzie;

Loxa ukhen behar eztuzie;

Haxeriek,

Ziren anaiek,

Zerbutxaturen zutie.

Gaur, su berri eghizie.

Bena aigu, anaiaren

Amodiozko potaren

Hartzera. —Adixkidia, deio oillarrak,
Zer berri honak
Deiztadan ekharten!
Eghiazki, dohaxu naik eghiten?
Hanxet, bi txakur tiat ikhusten,
Honat lasterka beitira jiten
Berri horen ekhartera,
Meziaren eghitera.
Iguriak, eraisten nuk;
Lauak besarkaturen gutuk.
Adio, adio,
Haxeriak dio,
Ene bidia
Duk luzia;
Beste aldi batez
Eghiteko horrez
Gutuk minzaturen;
Eta lasterrez da joaiten
Bere buriaren kontra samurrik.
Oillar zaharrak biozetik
Erri eghin du haren loxaz.
Bethi ere beita plazer handia
Amarrutxien atzamaitia
Bere xederetzaz.

16

KHAMELIA ETA MAKHILAK IGHERIKAN

Lehenik kamelubat ikhussi zienak
Lasterka harenganik hurruntu zen;
 Bigherrena huillanttu zen;
Kabasturu bat hirurgherenak
 Harenzat eghin zuen.
Holaxet ussu gauzen ikhustiak
Eder eghiten tu itsusiak.
Eta zer ere iduri beizeikun izigarria
Gurezat ezti da edireiten;
Askida haren ussu ikhustia.
Gauza hortan ghirenaz gheroz,
 Ghizon batzu zaudien
Beha zer urrak eramaiten zien.
Batek, so eghinik beghi oroz,
 Zioten unzi bat zela.
Denbora gutitan barnen
Gauza hori izaten da,
Xahakoa, baxeta
Eta haxe egurra.
Azkenian ikhssi zuten

Makhilak zirela igherika joaiten.

Hanitz badira mundian

Hola ikhusten dienik.

So eghiten denian

Hurrunetik

Zerbait da;

Huillanetik so ghin eta deusik ez da.

HERIOA ETA EGURKARIA

Egurkari gaixottobat, khaparrez

Eta adinez

Kargaturik,

Hasperenez, inziriz bazoen

Akhiturik.

Bere etxolala heltu nahizen.

Azkenian indarrez

Eta dolorez

Ezinturik,

Aurthiki ziren bere haxea.

Triste zen haren bizitzea.

Bere gogoan

Hola zioan:

Oraïdano nik mundian

Ukhen duta plazerik?

Bada lur biribilian

Ni bezain eskelerik?

Behin batez ez oghirik

Sekulan aldiz phausurik:

Ene emastiak, ene hurrek

Soldadoek eta legarrek
Eztaite thaik emaiten.
Herioari oïhu du eghiten.
Herioa behala jiten.
Zer nahiduk? deio galthazen.
—Aigu, lagunt nezak,
Dio egurkariak,
Haxe honen alxatzera,
Bizkarriala ezartera,
Eztuk hanitz beranturen.
Herioak oro dutu sendotzen.
Hobe da ghien bezala egoitia
Eziez eta hilzia.

18

ALDERDIAK ETA SABELA

Erreghetarzunaren gainetik
Ene lanak hasi behar zukien;
So ghitez alderdi batetik,
 Sabelian
Erreghe itxura guneke ediren.
Sabelak zerbait menx direnian
 Khorpitz guzia da minian.
Sabelarenzat lan ghitez akhiturik,
Aiton semen ghisan bizi nahiturik,
 Eghin gabe deusik;
 Alderdiek eghin zuten,
Egun batez, zin alfer zirela egonen.
 Sabelak deusik eztu eghiten,
 Bere khexian zioten;
Gu gabe aizez behar luke bizi;
Lehertzen ghira lanian bethi.
Lana noren dugu eghiten?
 Sabelarentako.
Ezkira gu probetxatzen;
 Haren assetzeko

Bai onghi akhitzen.

Besta eghin dezagun

Pausa ghitiren egun.

Erran bezala dute eghiten,
Eskuek deusik eztute hartzen;

Bessoak hilik dira egoiten;

Zankoak aldiz eztira ighitzen;

Orok sabelari dute erraiten:

 Bil ezak hire janharria.

 Jin zioten bertan dolia.

Alderdi hoiek dira eihartzen,

Odol berririk bihotzak eztu eghiten;

Alderdi bakoitxak min du izaten

Indarrak aldiz laster galtzen.

Ordian egon ziren jakinik

Alfer uste zuten harenganik

Jiten zela ooren bizia.

Erreghe baten hau da istoria.

 Erreghek du hartzen

 Eta emaiten.

Orok haren dugu lan eghiten

Eta orok harenganik bizia izaten.

 Bere phenez du bizirazten

Langhilia, tratulanta aberaxerazten,

Phakatzen aitzindariak

Beghiratzen laboriak;

Soldadoer emaitzez bizia

Leku guzietan du ezarten bakia.

Bethi unione onak

Eghiten tu ghizonen indarrak.

19

OXOA ARZAIÑTURIK

Oxo batek, ardi guti
Zielakoz atzamaiten
Aizoari,

Gogoan zuen ezari,
Haxeri larrubat jauntxirik,
Bizitzeko zuela zerbait izanen.

Arzaiñ ghisn bestiturik,
Gatzarpa eta makhila harturik,
Eskapila bizkarrian,
Tuta aztaparrian,

Gogo honez bere belarrian
Izkiribatu zukian:

Ni niz, ni Ghillen
Ardiño hoién
Arzaiña.

Makhilan ezaririk oiña
Emeki, emeki da huillanzen.
Ghillen, eghiazko Ghillen, lo zen.
Haren txakurra ere etzanik,
Zankoak hedaturik,

Lo zagoen.

Kasik ere ardi guziak

Ziren loak hartiak.

Falsiak lo ghitera ditu uzten.

Bena, ardien hotz emaiteko

Bere ziloala artino,

Iduri zaio behar diela

Aropari juntatu botza.

Bena ordian bera zen galdu;

Arzaiñaren botza eztu

Ahal uken hartu.

Haren minzoaz oïhanak

Izan ziren loxatiak.

Azanz hori orok dute enzuten;

Eta berehala iratzartzen

Ardiak, hora, muthila.

Oxo gaizo tzirtzila,

Herrox haien artian,

Eskapila bizkarrian

Eztaite bihurt ez joan.

Nonbaitik falsiak

Bethi dira atzamanak.

Oxo denak oxoa eghin dezala

Eta oxo bethi egon dadila.

HAXERIA ETA AKHERRA

Haxeria bidian zoen

Bere adixkide akherrareki;

Honen adarrak gora ziren ederki:

Bena etzien ikhusten

Sudurra beno hurrunago.

Bestia falsukeriako

Igaran zen nauzia.

Biek zuten egarria.

Phuzubaten barna eraixi ziren

Eta urrez asia edan zuten.

Haxeriak akherrari dero erraiten:

Hemen oraï zer dugu eghinen?

Edatia eztuk aski

Hementik behardiagu jalki.

Alxa itzak

Hire zanko aitzinekoak

Eta adarrak;

Harrisari

Huillant adi.

Hire bizkarraren gaineti

Igaranen nuk adarretara:

Eta hanti

Aisa joanen nuk gora;

Zilo hontarik ghero

Hi hait idokiko.

Akherrak derio: —Ene fedia!

Hire izpiritua

Duk handia!

Hi bezalako gentiak

Nitaz dutuk laidatiak.

Egundano nik enia jakinen

Hementik nola ghinen jalkiren.

Haxeria jalkitzen da phuzutik

Bere laguna han utzirik.

Gainera heltu denian

Erraiten derio: ago pazenzian:

Bidarrian bizar dian bezain zenzu

Izan balinbahu,

Phuzu hortarat ehinzan eraixiren

Eta hor ere oraï gheldituren.

Adio, ni hortik kanpoan nuk;

Jalki adi hi ere, ahal baduk.

Badiat zombait eghiteko,

Eta bidian egoiteko

Eztiat denborarik.

Urhenziari so ghitia da hobenik,

Gauza guzietan

Txipienetan, handienetan.

21

EMAZTIAK ETA KOXELUA

Koxeluaren beghiratzia beno
Deusik ezta gaitzago.
Emaztek eztiote hurrun erraman;
Eta gauza hortan
Emazte dira ghizon hanitz.
Bere emaztiaren esprabi nahiz
Ghizon bat, gauaz haren saihexetik,
Oihuz da hasten,
Zer da hau? Jinko jauna, erraiten duelarik;
Eztiot ghehiago, naute urratzen...
Zer!... arraultze bat dut erruten!
—Arraultze bat? —hau duzula freskik
Eta errun berririk.
Nihori ere eztuzu erranen
Bestelaz oilloa nute deithuren.
Gauza hortan emaztia
Orano zen berria,
Beste hanitz gauzetan bezala.
Gauza aisa sinhexi zuela
Jakinzazu, irakurzalia.

Bere Jinkoez hitz eman zuen
Hortaz deusik etzuela erranen.
Bena gauazko odeiren gainen
Haren zinak joan ziren.
Arghi hastian ohetik jaikirik
Emazte hau aski tontorik,
Lasterrez doa
Bere aizoaren etxera
Erraitera:
Ene maitia,
Eztakizu berria?
Eztuzu, othoi, deusik erranen
Bestelaz naizu joeraziren,
Ene senharrak egun
Arraultzebat dizu errun.
Othoi, eztezazula hitzik erran
Barnen ez kanpoan.
—Trufatzen zira? dio bestiak,
Eztakizu onxa nor nizan.
Zoaza, eztezazula loxaik ukan.
Errulearen emaztia
Bere etxerat da jiten
Eta aldiz bestia
Berriaren erran nahiz erratzen.

laurtzen du hamar lekutan;

Arraultze baten tokian

Hirur ditu ezarten.

Gauza hor ezta egoiten;

Beste emazte batek behariala,

Ahapatik lau errun tiela

Du erraiten.

Eta nola ere ahoz aho

Berria jin beitzen handiago,

Arraxa beno lehen

Errana izan zen

Ghizon hark ziela errun

Arraultze berehun.

22

HAXERIA ETA MAHAXAK

Haxeri bat naphatarra (*),
Bestek diote laphurtarra,
Mahaxte bat ikhussirik,
Mahaxak ziren honturik,
Asseren zela gogo honez
Erran zuen mahax hoiez.

Bena molkoak etziotzan atzaman.

Berdeghi dituk orano, zuen erran,
Honak dituk muthil zarren.

Arrankuratzez hobe zuena eghinen?

ARZAIÑA ETA HAREN ARREZ SALDOA

—Zer! bethi menx dutek
Zonbait ene arrez saldotik?
Hoi en kontatzez eztuket
Sekulan nik probexurik?
Oxoak deitazta janen!
Elgarreki mila ziren

Eta eramaitera utzi dute Marroa,
Marro, ene ahari gaizoa!
Jarraikiten zaitadan
Oghi poxibaten, hirian,
Jarraiki zatien mundu bazterriala!

Jiten zen lasterrez en xurulala:
Hurruntik senditzen nundian.

Ai ene Marroa,
Ahari gaizoa!

Ghillen, elhe hoiek erran tienian,
Bere Marroaren ohizpena
Ezarririk bihotzian barna,
Arres orrori da minzaten.

Ahariak, anxiak, axuriak
Loxa ez izatez ditu othoitzen,
Erraiten derelarik haien ikhustiak,
Junto badira egoiten,
Oxoak dituela izituren.
Harriak bezala egoiteko
Bat bakoixak eghiten du boto.
Nahi dugu, zioten, itho
Behala, Marroa
Jan deikun oxoa.
Bakoitxak buriaren gaineti
Zin eghin zien gogoti.
Ghillenek hoier zien sinhexi
Eman ere bai besta berri.
Bena arraxa beno lehen
Gauzak gaizki itzuli ziren.
Oxo bat agherturik,
Arrez soldoak laster du eghiten.
Aghertu ezten oxorik
Haren itzala baizik etzen.
Minza zite genter,
Bihotzik eztiener,
Hanitz deizie hitzemanen.
Bena perill txipienian

Dizie bihotza galduren;
Eta zure erranian
Ez fidaturen.

OXOAK ETA ARDIAK

Mila eta zenbait urtheren burian
Oxoek ardienkin bake eghin zian;
 Arauz bi alderdien
 Probetxia beitzen,
Oxoek jaten bazuten
Ardi herratiak,
Arzaiñek zuten eghiten
 Oxo larruz arropak.
 Batek libertaterik
Etzuten bazkatzeko,
Ez bestek tenorerik
 Odol ixurtzeko.
 Loxaekilan ziren
Bere honaz gozaten.
Eghin zuzten beraz bakiak,
Elgarri ere eman ordariak.
Bere humeak ardier
Eman zuzten oxoek,
Txakurak aldiz oxoer
Eman zuzten ardiek.

Arteko hartuek

Eghin zuzten kanbio hoiek.

Denbora llaburen barnen

Oxo humeak handitu ziren.

Egun batez, hurrun koraleti

Zielarik arzaiñak,

Axuri ghizenenak

Hilik, oxoak olharen ondoti

Lasterrez doatza oihanen barna ,

Ahoan harturik nork bere jana.

Lan horen berriak

Oxo aiten beharriak

Enzun zutien. Hoiien hitzemanian

Txakurrak lo ziren; Gauaren erdian,

Senditu gabetarik,

Ithorik,

Laurdenkaturik izan ziren.

Bakhoitx bat ezkapi ez umen zen.

Ikhusten dugu hemen

Gaiztoer gherla emaitia

Zenbat bethi hon den.

Gauza hona da bakia,

Bena zer eghiten ahal du

Exaiak hitzik ezpa du?

25

OXOA ETA ZIKOINA

Oxoek ahutzetaz dute jaten.
Oxo batek bestaliar joanik
Hain lasterreghi jan zuen,
Holaxet dut enzunik,
Zoin kasik galdu beitziren bizia:
Ezur bat egon zaikon baratia
Estariaren erdian.
Iruski ordu berian,
Igaran zen hurbiletik
Zikoina lepho luzia.
Oxoak etzion erran hitzik.
Besoaz eghiten do keinia
Jin dadin haregana.
Zikoina behala jina
Barber lanian da hasten;
Ezurra bortxaz idokiten,
Eta lan saria galthatzen.
—Lan saria,
Ene maitia?
Erraiten dero oxoak,

Erakusten tiolarik hortzak.
Arauz erri duzu eghiten
Eta nitaz zira trufazen.
Ezta aski ossorik
Zure lephoaren jalkitzia
Ene tzunzur erditik?
Zootza, bekaiztia zia.
Sekulan ene aztaparriala,
Othoi, errort etzitiela.

HAXERIA ETA ZIKOINA

Haxeri jaunak behin
 Beghiatu zien berekin
 Zikoina barazkaitako;
 Gutu, gutu zuten jateko.
 Jaunak bere apairuko
 Moillia mehe bat zien;
 Eskele ghisan zen bizitzen.
 Gathulu zabal baten barnen
 Moillia hori ezari zien.
 Zikoinak bere mosko luziaz
 Txortik atzaman etzioan:
 Koki txarrak bere mihiaz
 Oro xiflatu zian.
 Falsukeria hortzaz mendekatzeko
 Zikoinak barazkaita du kumitatzen.
 —Gogo honez, derio erraiten
 Haxeriak; ene adixkidentako
 Bethi nuzu lehian.
 Egun eta oren erranian,
 Badoa lasterka zikoinaren etxera.

Edireiten du etxe hori ederra,
Eta barazkaria
Ezin hobeki erria.
Gosia zien handia,
Gose menx ezpeita haxeria.
Araghi ussainak plazer zeion eghiten,
Hona zela zeion iduritzen.
Apairia izan zen zerbitzattia
Unzi lepho luze batetan;
Zikoinaren moskoa han
Doidoia zen sartzen.
Haxeri horrek zien
Lodixeghi sudurra.
Ixil ixila itzuli zen
Barurik bere etxera;
Ahalketurik oillo batek
Atzaman balu bezala;
Ezaririk sabel pian buztana
Beharriak aldiz behera.
Falsia, hau hire duk izkribattia;
Igurikak bethi ordaria.

OXOA, AHUNZA ETA AHUINIA

Ahunzak errapiaren betatzera
Joaitian, eta belhar fresk jatera,
Bortha zerratu zien klisketian;
Eta bere ahuiniari erran zian:
Eztezazula zabalt athia,
Ezpaduzu galdu nahi bizia;
Ezpalin badeizie erraiten:
Belhar oxo da ikhustera jiten.
Holaxet minzo delarik
Oxo bat igaraiten da hantik,
Elhe hoiek ditu enzuten
Eta gogoan etxekiten.
Ahunzak, uste duzun bezala,
Etzakien oxoa han zela.
Ahunza joan dela ikhussi duenian,
Bere botza kanbiatzen du
Eta bere oïhu falsian
Marrakeghitez erraiten du:
Bortha zabal zazu, belhar oxo da.
Uste zien sarthuren zela behala.

Ahuiniak bortha xiloti sodu eghiten,

Eta behala erraiten:

Erakutx zazu besso xuria,

Bestelaz ene athia

Eztuzu zurezat zabalturen.

Besso xuria oxoen

Gauza arraoa duzu.

Hitz hoiez oxoa espantaturik

Jin bezala joaiten duzu.

Ahuiniak lukia oraï bizirik

Fidatu izan baliz oxoak

Enzun zutien hitzer?

Jakin zazie, haurrak,

Hobe dela bi segurtater

Bati beno fidatzia.

Sobera gauza hortan ezta galdia.

ZAMARIA ORKATZAZ MENDEKATU NAHIAN

Sekulaz gheroz zamaria
Ghizonaren ezta sorthia.
Ghizona ziz bizi zenian
Astoak, mandoak, oihanian
 Ziradien
 Egoiten;
Eta etzen agheri, oraï bezala,
Hainbeste basto, hainbeste zela,
Ez gherlako hainbeste trastu;
Hainbeste karroxa; hainbeste apairu
 Ghizonek ezuten eghiten.
 Denbora hartan arren
 Zamaria hitzkatu zen
 Orkatz zalhu bateki.
 Ghizonaren medioareki
Lasterrez atzamanen diela
Uste ukeiten du behala.
 Ghizona gana badoa,
 Emaiten derio ahoa,

Kabasturia ezar ahal dizon.
Ghizona bizkarriala igaran zeion,
Eta etzeron eman thaik
Orkatza ikhus artino hilik.

Ordian zamariak

Eskerrak

Ghizonari dutu emaiten,
Bai eta hari erraiten:
Zure zerbitzaria nuzu:
Ene mendietarat banoazu.
Ez, jauna, ez, dio ghizonak,
Hobe duzu hemen egoitia,
Ezagutzen tit zure indarrak;
Zure dukezu gure etxia.
Egun oroz izanen zia assian;
Belharra dukezu bethi sabel pian.
Ai! ai! zertako da assia
Galzen bada libertatia!!
Zamariak beranteghi ikhussi zin
Astokeria bat ziela eghin.
Haren barrukia eghinik zen
Zointan egon behar beitzien.
Hil zen bere barrukian.
Zuhurki eghin zukian

Oghen txipi baten barkatzez.
Zer nahi plazer izatez
Mendekatzian, karioeghi da
Plazera, eman behar bada
 Libertatia,
Hontarzun handia.

29

ARRAIN TXIPIA ETA ARANZARIA

Arrain txipia da handituren
Jinkoak badu bizierazten:
Ordartino haren uztia
Erzokeria da handia,
Zeren haren atzamaitia
Ezpeita gauza segurtatia.
Aranzari batek bere saretan
Arraintto bat ziren atzaman:
Txipia beno handiago etzen.
Orok saldo dute eghiten,
Erraiten du ghizonak.
Azia etzaut gaizki jiten,
Eghinen tut apairu honak;
Ezar dezagun ihian.
Arrain, gaixoak bere mihian,
Erraiten derio nigarrez
Eta ere hasperenez:
Nitzaz zer eghin ahal diozu?
Ahutzetatto baten hon enuzu.

Utzi nezazu handitzera;
Jinen zizaizt ordin atzamaitera,
Eta naizu salduen
Diru parasta baten:
Behar zinuke ehun ni bezalako
Apairu baten egun eghiteko.

Zer apairu orano?

Deusik elikezu balio.

—Deusik balio elukia?

Erraiten dero aranzariak,
Hanbat gaixto! adixkidia:
Igurikatzen zutu zartaghinak

Gure etxen.

Deusik eztuzu irabaziren
Minzatzez eta zer nahi erraitez;
Janen zitugu gaur gure hortzez.

Biga izanen tuk beno,
Baten etxekitzia hobe duzu;

Holaxet oraï artino

Ikhassia izan nuzu.

Bata bezain segur

Bestia eztela nuzu beldur.

30

HAXERI BUZTAN MUTZA

Haxeri bat amarrutxienetarik,
Oillo jale handienetarik,
Haxeri ussaina
Lekoala senditzen ziena,
Zephoan atzamanik
Izan zen.

Ahal bezala eskapi zen;
Buztana han utzirik.
Hurruntu zen botzik,
Ahalkia beghian
Gaixtokeria gogoan.
Haxeriak zielarik
Egunbatez saldoturik,
Holaxet da laguner minzaten,
Sudurra derielarik erakhusten:
Ghibeleko haxe honez
Zer dugu eghiten?
Jaunak, gure buztanez
Ditugu bidiak xaxatzen.
Buztanak mutz ditzagun

Orok berehala egun;
Ghirate arhinago
Baita eigerrago.
Zure konseillia,
Ene adixkidia,
Erraiten dero lagun batek,
Hanitz hon duzu;
Bena ene lagun hoiek,
Utzuli nahi baduzu,
Badakikezie zuri zer erran.
Karkaillaz oro ordian
Hasten dira lagunak;
Eta buztan llaburrak
Ahoa eztu idoki gheroztik,
Ikhussirik nihork ezuela nahi
 Sinhexi.

31

AXOA ETA HAREN BI NESKATOAK

Axo batek bi neskato bazutien

Irule hobenetarik ziradien.

Axoaren lan handiena

Zen haier ematia lana.

Arghia beno lehenago

Murkuillak,

Ardatzak

Zoin beno lasterago,

Egun oroz lanian

Parrastaz ari zian.

Iguzkia jaiki gabetarik,

Oillarra kukurukuz hassirik,

Axo zen iratzartzen.

Oheti jauzi eghinik,

Axotto hau, bilauzirik,

Lasterrez, aurthoxik zen joaiten,

Kanderabat eskian,

Khexia belarrian,

Neskatoen ohera

Haien jaikeraztera.
Neskato hoiek loian
Gogo honez zaudian.
Axoaren botziala
Pizten zeien odola.
Batak beghia zabalturik,
Bestiak besoa hedaturik,
Bere hortzen artian zuten
Erraiten:
«Oillar debria!
»Galduren duk bizia!»
Erran zuten bezala
Jakinzak, irakurzalia,
Buhurtu zutela
Oillarari lephoa.
Zer zen haien gogoa!
Zoinen tontoak ziren!!
Etzen hobetu haien zorthia,
Nahi bada galdu zuen
Oillarak bere bizia.
Axa gauaren erdian,
Bere zankoen gainian,
Harat, honat dabila;
Galdu zuen izkila.

Zer nahi tenorez jaikirik,
Beldurez orena zen igaranik,
Bere etxe guzia
Goiti behera zuen ezarten,
Eta neskatoak oihuz jaikirazten.
Hola hola, hanitz aldiz,
Eghiteko gaixtotik jalki nahiz
Eghitekoa dugu txartzen,
Ghihauren putzian ghira ithotzen.
Gure faltaz erorten ghira
Mandotik astora.

32

ZAMARIA ETA OXOA

Aize ephelen hasperenak
Urterazirik elhurak,
Belharra mendietan
Sortzen zen denboran,
Oxo batek ikhussi zuen,
Beghi honak zituen,
Hurrunti, zaldi bat sorhoan,
Ezarririk baska berrian.
Ikhuste horek derio bihotza alxatzen
Bai eta ere indar honik emaiten.

Zer ihizia!

Bere gogoan du erraiten;
Balin bahintz aharia,
Laster hinzate enia.
Bena abill denak hai ukenen,
Abill nuk arren ni izanen.
Hola minzo delarik,
Urhaxez urhax da jiten;
Eskoletarik heltu dela du erraiten,
Barbergoa han ikhassirik;

Belharren indarrak ezaguturik,
Eritarzun guziak
Dutiela sendorazten;
Eta jaun zaldiak

Bere mina ezpadu gordatzen,
Sendoturen diela ezdeus baten;
Kabasturu gaberik zeren
Sorhoan bazkatzia
Eritarzun handi baten
Beitzen iduria.

—Aztalian dit itzemin bat,
Erraiten dero zaldiak.

—Ene semia, badakiat,
Erraiten do oxoak,
Min gaixtoagorik eztela;
Hanitz gaizki duk hire aztala:
Zamari jaunen barbera
Ni nuk. Jar adi goiti behera.
Eria falsu horek jan nahi zien.
Bestiak ere falsukeria ikhussi zien.
Ostiko bighez hortzak
Oxoari deitzo hausten
Eta aldiz mathelak
Ber kolpiaz jauzerazten.

Onxa, dio oxoak tristerik,
Ezta oraï hemen barberik.

Nork gure ezbatia

Eghin dezagula; araghi jalia

Ni nundian,

Araghi jale egon behar nian

Barbertu gabetarik;

Enikia oraï menx hortzik.

33

LABORARIA ETA HAREN SEMEAK

Lan eghizie,
Phena harzazie,
Emaile handia
Beita lur erabilia.
Laborari aberax batek
Hilzera zoela ikhussirik,
Jakin gabe nihorek,
Bere haurrak jinerazirik,
 Erran zeien;
Eztutuzie salduren
Askaziek utzi alhorrak.
Han gorderik dira hontarzunak;
Eztakit zoin lekutan,
 Bena bertan
Edirenen tuzie
Nahi batuzie:
Golde nabarrez
Batuzie itzulzen,
 Eta aitzurez

Barnaixka aitzurzen;
Ezpada ghelditzen tokirik
Ziren eskiek honki gaberik.
Aita hil zenian,
Seme hoiiek alhorrian
Goizetik araxera lanian
Egun guzietz ari zian.
Urthe azkena beno lehen
Alhorrek doble eman zuten.
Diru gorderik han etzen;
Bena aita zuhur izanzen
Bere semer erakhustez,
Alhorretan langhitez
Dirua zela bilzen,
Baita ere hontarzuna handitzen.

34

MENDIA HAUR-MINETAN

Mendi bat haur minetan

Orroaz ari zen.

Gentek orroa hoietan,

Uste ukhen zuten

Mendiak sorthuren ziela

Parise bezalako hiri bat.

Zer ezari zien mundiala?

Saguttobat.

Kontu hau gogoala bazait jiten,

Ikhusten dudala zait iduritzen

Espantotx bat zoinen erranak

Hanitz beitu hitzemaiten,

Eta zoinen lan eghinak

Aizetan beitira joaiten.

35

OILLO URHE-ARAULTZE ERRULIA

Bekhaizteriak oro dutu galzen

Oro nahiz irabazi.

Eghia dudala erraiten

Nahidut jakinerazi.

Ghizon batek oillo bat bazuen

Zoinek goiz guziez,

Bere kokodatzez,

Erakhusten beitzuen

Araultzia zuela errun.

Errun zutien ber ehun,

Oro urhezko araultziak.

Ghizon bekhaiztiak

Gogoan zuen izan

Oilloak sabelian

Urhe zenda zombait zuela.

Hontarzun horren lasterago

Ukaiteko,

Oillo gaixoa hil zuela

Jakinzazu, adixkidia.

Bena zer izan zen harendolia!
Sabela iauri ondoan,
Urherik etzeion ediren barnean;
Beste oilloak bezalako zen.
Ghizon horrek hontarzun berak galdu zuen.
 Zer leziona handia!!
Hanitz gente eskele jin dia
 Aberax nahiz izan
 Laster eta bertan.

HARTZA ETA BI LAGUNAK

Bi mothikok, sakela huxik,
Diru mengoaturik,
Beren aizoari,
Larru salzaliari,
Hitzeman zuten

Hartz larru bat zeiotela salduren;
Nahi bada hartza oihanetan
Orano bizirik zabilan:
Bainan egun gutitan,
Muthil hoiek erran zuten,
Zutela lahardekaturen.
Hartza ederra beitzen,
Larru horrez, aizoari erran zuten,
Diru hanitz zuela eghinen,
Eta aisa zela aberaxturen.

Tratia akabirik,
Larrua onghi saldurik,
Hartzaren atzamaitera
Muthilak doatza gora, behera,
Mendiz mendi.

Eghin zuten bide erdi
Ikhusten dienian,
Oïhan bazterrian,
Hartza haien ganat jiten.
Mothiko hoiek harriturik
Dirade egoiten.

Bata, buria ez galdurik,
Zuhain bati gora da joaiten.
Bestia aldiz ixil, ixila,
Harri hotz bat bezala,
Ahozpez etzanik,
Izan baliz bezala hilik,
Ighitu gabe da egoiten;
Hatxik ere eztu hartzen.
Muthil horrek enzun beitzian,
Eztakit non, bena zenbait lekutan,
Khorpitz hil eta hax gabiak
Etziela hartzez honkitiak.
Jaun hartzak sinhexirik,
Asto batek bezala,
Ghizon hau onghi zela hilik,
Aztaparrez berehala
Harat, honat, du itzulzen;
Eta sudurraz senditzen

Ghizonari ahotik

Jalkitzen zeionez haxik.

Hila da, harzak du erraiten,

Bai, ussain gaixtoa du emaiten;

Hots hementik,

Hau utzirik.

Oïhanian barna

Joan zen hartza.

Zuhainera igaran zen laguna,

Umen zuen bihotz hona,

Lasterrez eraixirik,

Laguna gana jinik,

O, zer gozoa! derio erraiten:

Eztuk minik ukhen

Loxeria baizik.

Hartz larurik

Eztughia?

Errak eghia,

Zer zeia erraiten?

Behariala zeia minzatzen,

Aztaparras hinduelarik itzulzen.

—Hau erran ditadak:

Sekulan ghizonak

Hartzaren larria

Eztiela behar saldu
Hartzari bizia
Lehenik idoki ezpadu.

37

BI ZORROAK

Jupiterrek egun batez eran zuen:

Bizi dien guziak jin ditien

Ene aitziniala.

Norbait ber izatiaz botz ezpada

Loxarik gabe minza dadila;

Sendoren dut haren mina.

Zato, zu, tximinoa, minza zaite lehenik;

Eztuzu eghinen oghenik

Zure laguner,

Ez hoi en edertarzuner.

Zure beghitartiaz zer duzu erraiten?

—Nik? deusik; eniza lau zankoz joaiten

Beste hoiek bezala?

Oraïdano bissaiaik

Gaizkirik erran eztaut sekula.

Bena ene anaie hartzak

Zerbait behar luke galthatu.

Sinhexi nahi banu,

Eghineraziren eztu

Bere moldia,

Zeren beita itsusia.

Hartza hurbilzen da ordian.

Arrankuraturen zela uste zunian?

Ez, ez; bere molde ederraz duzu laidatzen,

Eta elefantaz ghero minzaten.

Edireiten diozu buztana llaburxka,

Beharriak aldiz luzeixka.

Elefanta ordian da huillantzen

Eta ghisia berian minzaten.

Hari iduri zaiko balena anderia

Soberaxet dela lodia.

Inhurriari kukusoa txipiño iduri ziozu;

Haren aldian mendi bat dela uste dizu.

Jupiterrek guziak ditizu igorten,

Batek bestez gaizki dielakoz erraiten.

Bena ertzo hoién artian gu ghinén handienak

Besteren menxak ikhusten tugu, ez aldiz guriak.

Gurezat ezti, besterenzat ozmin gutuzu.

Bi zorro nausi handiak ezari dikuzu;

Bata ghibelian

Bestia aitzinian.

Gure huxak ghiblekoan ditugu ezarten,

Besteren huxak aldiz aitzinekoan ekharten.

ESNE SALZALIA ETA KOTXIA

Maillaitak, kotxu bat burian
Jaririk kapete gainian,
Uste zuen lerratu gaberik
Helturen zela
Bai hiriala.

Arhin, eta zaia llaburturik,
Urhax handiz bazoen;
Zeren ezari beitzuen,
Arhinxago
Izateko,

Kotapeko meheak,
Espartiña xotilak
Gure esne salzaliak,
Holaxet beztitiak,
Gogoz kondatzen zuen
Bere esne-kotxuaren
Saria.

Diria
Zuen behala ezarten
Ehun araultzetan,

Oillo koroketan.
Maillaitaren gogoak
Edertzen tu gauzak.
Botzturik berak zioan:
Eghiaz, gure etxe aldian,
Oilloen haztia,
Hen handirazia
Date gauza ttipia.
Haxeria xotil duken
Ezpadein oilloz aski uzten
Xerri baten erosteko.
Urde honek ghizenzeko
Behar diken zahi guti:
Hartu beitut aski handi.
Txino hori hik salzen badun,
Urhe ederrik izanen dun
Erosteko behi xahaldun baten.
Xahala jauztekan
Idi saldo erditan
Diñagu guk ikhussiren.
Maillaita hortan gainen
Bera da jauziz hasten.
Esnea lurrerat erortzen.
Adio, xahala, behia,

Araultziak eta urdia!
Hontarzun hoiien andria
Hontarzunga lurrerat ixuririk,
Beghiak nigarrez bustirik,
Beldurreki makhilaren
Ghizona gana joan zen.
Buruz buru senharrari
Esnearen eman zeion berri.
Izan zen deithia
Maillaita kotxia.

Nork gogoz eztutu bazterrak joiten?
Nork Espainian eztu jaureghi eghiten?
Phettek, Manexek,
Esne salzalek,
Eta guziek,
Zuhurrek, erghelek.

Bakoitxa, beghiak zabalik,
Ametxez dago goizetik
Arraxerano;
Deus ghehiago
Hoberik ezta mundian.
Lurreko hontarzunian
Igherika gabilade
Guri beha baghirade.

Bai, bai, guziak
Dira guriak:
Ohoriak
Emastiak.

Eghiazki, nihau nizanian, azkhar niz,
Azkharagoer erran nahi dut bi hitz:
Erreghe naute eghiten;
Gentek nute maithatzen;
Khor oak turrustaz zitzaiztat jiten,
Bainan ni nihautan niza bai sartzen,
Johane niz edireiten,
Ni ninzan bezala lehen.

ZAMARIA ETA ASTOA

Bere beharretan

Lur biribil hontan

Gure lagunak behar tugu,

Ahal oroz, bethi laguntu.

Hire aizoa balin bada hilzen

Haxea higanat duk erortzen.

Asto bat bidez bide bazoan

Jaun-handi zaldi baten ondotik.

Bere karga pian leherturik,

Lasto-jalea inziriz ari zen.

Zaldiak arbaldak xoilak zuen.

Pixkañobat, zaldiari erraiten du,

Lagunt nazu zuk, ahal baduzu,

Bestela ni hilen nuzu

Heltu gabe hiriala.

Othoitzen zaitut oneski;

Haxe honen erdia bizkarriala

Ezaririk, zu ederki

Oraïno txosta zintazke.

Eztiat nahi, erraiten du zaldiak,

Eta eghiten uztar ostikoak;
Hi ordian phausa hintake.
Bere laguna ikhussi zuenian
Onghi hilik kargaren pian,
Oghen handi diat, erran zuen,
Eghiaz oraï diat ezagutzen.
Asto-zenaren haxea ordian
Ezarri zioten bizkarrian,
Larrua ere haxe gainian.

ALHARGUNXA GAZTIA

Hil-herrialat nigar gaberik

Senhar bat eztaite joan.

Nigar erreka gainean

Doelarik

Gaixoa dago ahatzerik.

Denbora hegaletan badoatza phenak

Ber hegaletan jiten aldiz plazerak.

Egunkoaren beghia

Eztu txazko alhargunxak;

Elio segur ghizonak

Sinhex dela ber emaztia.

Txaz ghizoner etzuen soik eghiten;

Egun beghi-kalduz ditu hurbileratzen.

Hau hasperenetan heiagoraz dago,

Bihotz-minak umen ditu handiago,

Eztela dio konsolaturen;

Ghezurak ditu gordinki erraiten.

Ikhussiren dugu guk ghezur hoietan

Eghiak aurkitzen diren bai nolatan.

Andre ederbaten senharra

Bazoen beste mundurra.

Emaztik oihuz zieion saihexeti:

Igurika nezak, jiten nuk hireki.

Bai, bai, ene arimak hegaltaz airian

Laguntu nahi dik hirea bidian.

Bena senharra ber bera da joaiten.

Andre ederrak zuen aita bat izaten:

Ghizon xotila, baita ere zuhurra,

Idortu ezpeitzeion turrusta nigarra.

Azkeneko

Hauraren

Nigarren

Xukatzeko

Hitz hoiek deitzo erraiten:

Sobera dun hik nigar eghiten,

Marraskek haite hanitz itsusten.

Nigarrez senharra eztun pizturen.

Baditun biziak

Utzitzan, utz hilak.

Eztinat nahi nik berehala

Nigarrak hitan itzul ditela

Ezteizko denborala.

Ni bainan utz nezan

Zenbait egunetan

Ekhartera

Hire etxera

Senhar gazte, pollit, azkar eta eder bat;

Senhar zena hiren hik ghizon txirxillbat.

—Ez, ez, aita, ni enuzu ezkunduren,

Komentian nuzu behala sarthuren,

Alhargunxak erran zuen.

Alhabaren bihotz-minak

Beheratzea uzten tu aitak.

Hilabete bat da holaxet joaiten.

Bigarren hilabethian

Etxeko hoiek lehian

Arroper, zaiari, bardin mothoari

Zerbait kanbiatzen oro dirade ari.

Arropa belzenak, zaia eder haiduru,

Edertarzunaren egon dite inguru.

Joan ziren maitharzunek

Hegaltaz bai ethorriek,

Alhargunxa bihotzian,

Lehengo thoki ederrian,

Habiak eghin zituzten.

Jostak, irriak jin ziren,

Guziak bere thornian:

Gauzez, goizez, igherikan

Gaztaroko ur epholetan

Alhargunxa onghi zabilan.

Aitak, oraï beldur gaberik

Senhar maithatua zena ganik,

Hitzik alhabari etzon erraiten.

Non da beraz, deio honek galthatzen,

Senhar gazte eta hona

Zuk eni hitzemana?

NEKEZALEA ETA SUGHEA

Badio Esopek,
Nekezalebatek
Bere sorhoan,
Negu denboran,
Ibilten zelarik,

Sughe bat zurela ediren
Elhur gainen
Hedaturik.

Kharuntaturik, harriturik,
Hil hilik, bai ere ezinturik,
Oren laurden baten
Bizirik etzuen.

Ghizon horrek du eraikiten,
Bere etxerat eramaiten.

Jakin etzuen, ez,
Zer zukien
Sari ukhenen.
Sut ondoan ezartez,
Onghi beroturik
Alderdi batetik,

Bai eta bestetik,
Sughea du pitzerazten.
Beroa duelarik senditzen
Hil hotz sughek
Buria du alxatzen;
Haren huiztuak
Etxea bethatzen.
Sughea khexuturik,
Inguru bat eghinik,
Bere honkieghiliari
Bizia eman dionari
Beghitartiala jauzi
Zaiko bai nahi.
Debru eskergabia,
Hori da bai ene saria?
Nekezaleak du erraiten,
Igurikak, haut nik hilen.
Bere khexian,
Ordu berian,
Aizkora harturik,
Hartaz sughea jorik,
Bi colpuz hirur sughe ditu eghiten.
Buria, khorpitzeta eta buztana
Jauziz, lothu nahiz elgargana,

Berehala dirade hasten;
Bainan eztira ez josten.
Hon da honghile izatia;
Norenzat? hor da hor puntia.
Bethi danik eskergabiak
Izan tu urhenze txarrak.

IHZIAK IZURRIAZ ERI

Min tzar bat, izigarria,
Zeru-khexuk igorria,
Lurreko gaiztokerien zehatzeko,
Izurria (bere izenaz deitzeko)
Aberaxzale Iferniaren,
Ihizier gherla ari zen eghiten.
Hilzen etziren ez guziak;
Bainan oro ziren honkitiak
 Bat etzen agheririk
 Bizi nahi zuenik;
 Etzen ez, jaki honik
 Haiek gutziaturik.
Oxoak, haxeriak etziren
Janhari beha nihon egoiten;
Urzo-aphalak hegaletan
Elgar ganik hurrun zoatzen.
 Adio amodioak
 Eta boztarioak.
Lehoak konseilua bildurik
Erran zeion: egun uste dut nik,

Adixkide maitiak,
Min hau honat zeruak
Utzi duela jitera
Gure oghenen ikhuztera.

Gaixtoena gutan denik hil dadila
Zeruaren emarazteko behala.

Heldu bada gu guziak
Ordin ghirate sendotiak.

Zaharrek diote, izurri denboran,
Besterenzat norbait hil dela batzutan.

Ezkitiren gu beraz engana,
Soghin dezagun bihotzin barna.
Gossiaren nik ja hilzeko
Xikiro hanitz dizit erho.

Eni zer oghen eghin zeiten!
Oghenik batere.

Zenbait alditan ere

Arzain araghi ari izan niz jaten.

Behar bada arren

Besterenzat ni niz hilen.

Bena, nik uste dut, behala

Bakoitxak behar lukiela

Bere bihotza ikhertu,

Nik eghin dudan bezala.

Bakoitxak nahi izan behar du
Xuxenki hil dadila
Oghenxuenik nor dena.
—Jauna, dio haxeriak,
Erreghe honeghi zira;
Zure erreligioniak

Eghiten zitu xuxen sobera.
Zer! ahari jatea,
Gente gaixto eta astotik,
Oghen handia deia?

Ez, ez, eghin zinuzten, jauna
Ohorerik handiena
Haien karraskatzian
Zure hortzen artian.

Arzaiñak aldiz, ahal diot erran,
Gaizki handienak merexi zutian,
Zeren beitzen gente hoietarik
Ihizietan botere duenetarik.
Hola zen haxeria minzatu.
Lauzenkariak zuten laidatu.
Loxak etzutien utzi hartzaren,
Tigroaren eta ghehienen
Oghen handien ikhertzera.
Bakoitxaren erranera,

Aharrari guziak,
Baita ere txakurrak
Ziren saintuñoak.

Astoa jin zen bere thornian

Eta erran zian:

Orhoit niz aphez-sorho batetik

Urhaxez urhax nindoelarik,

Gossiak, belhar freskak,

Eta arauz debru arimak

Nahierazirik,

Sorho hartako belharetik

Mihitaño bat muztu nuela nik.

Enuen dretxorik hortako,

Eghiaren hemen erraiteko.

Hitz hoietan guziak astoari

Oghen emaiten dirade ari.

Oxoak elhestan ikhassirik

Animale madarikatutik,

Ilhe menx, hasteridun hortarik

Min guziak ziretzela jiten,

Hasten da erraiten;

Eta gheroz hilari

Behar zutela igori.

Astoaren oghenñiak

Merexitu zituen urkabiak.

Oi, besteren

Belhararen

Jatea, zer gaizki handia!

Hilziak berak gaixtokeria

Ziokan phaka doidoia.

Astoari onghi

Zioten erakutxi.

Azkhar edo flaku hizaten bezala

Jakinzak, adixkidia,

Hau duk gure izatia,

Khortian xuri edo beltz eghinen hutela.

43

ARATHOIN MUNDIA UTZI DUENA

Goixtiarrek bere kondu zaharretan
Diote arathoin bat, hemenko lanetan
 Akhiturik,
 Olanda gazna batetan
 Sarturik,
Hurruntu zela lurko heroxetarik.
 Barnaixka zen karbea
 Inguru guzian hedatua.
 Gure ermita berriak
 Han zituen janhariak.
 Eghin zuen azkenian
 Hainbeste, zankoez
 Eta hortzez,
 Zoin, egun gutiren barnian,
 Han ukan beitzutian
 Bizia
 Eta atherbia.
Zer behar da ghehiago?
 Lodi zen

Eta ghizen,
Zerentako

Gainkoak bere honak beitu igorten
Diener Jeinkotiartzen.

Egun batez Jeinkotiararen etxera
Arathoin-populu mezu eghiliak,
Amoinato baten galthatzera,
Jin ziren. Ziradiren joailiak

Arrotz-lurretara
Sokorri txerkara,

Gathu armadatik beghiratzeko.

Arathoin hiriko
Atheak

Ziren zerratuak.

Bidian jarri ziren

Bolsak hutsik,

Zeren herria beitzen

Hanitz praubeturik.

Guti zuten galdeghiten;

Lau edo bortz egunen barnen

Segur zielakoz sokorriak

Ziatiela juntatiak.

—Ene adixkidiak, deiote ermitak,
Lurreko gauzetan eztitut nik lanak.

Zertan mundiaz ahatzerik den gaixoak

Sokorri ahal zestakete?

Zer eghin ahal dezake,

Othoitze baizik Jeinkoari

Eman dezeizien sokorri?

Uste dut haren gogo-minak

Sendoturen tiela ziren gaitzak.

Hitz hoiek erranik,

Bere athea hersirik,

Saindu berria barnat joan zen.

Zure iduriala nortaz niz minzaten,

Arathoin bekaiztiaz baniz aiphatzen?

—Aphezaz?

—Ez, bena bai kapuxiaz;

Sinhexi nahi dut aphezak

EMAILE DIRELA GUZIAK.

ILHAINXA ETA ERRESIÑOLA

Ilhainxak,
Ohoín handiak,

Loxeria bazterretan iauririk,
Herriko haurñoer oihu eghinerazirik,
Bere aztaparrez atzaman zuen
Erresiñol bat,
Udariko txoria.

Hau biziaren galthatzen
Zaio gaixoa hasten,
Zerenzat
Ezpeita janharía
Ihizi soiñu eghilia.

—Othoi, enzun zazu zuk nere kantia:
Terearen erranen deizut nik istoria,
Haren ere bai jaloskeria.

—Zer, Terea? ilhainxen janharía deia?

—Ez, erreghe zuzun;
Haren su garráz errerik
Behin izan nunduzun.

Nik

Kantaturen deizut kantore ederrena
Eghinen beiteizu plazer handiena;

Ene kantiak guzier

Eghiten dizu plazer eder.

—Zer, barur denari hire botz eigerraz

Minzaten hiza bai zinzinzki?

Galthatzen deio ilhainxak borthizki.

—Erregher minzo nuzu, eghiazki.

—Erreghez izaten bahiz atzamanik,

Kanta itzok, kanta hire istoriak,

Erri eghinen dik jaun ilhainxak.

Eztik beharririk

Sabel gossiak.

45

ZIA ETA KHUIA

Jeinkoaren eghinak
Onghi dirade sorthiak.
Ibili gabe lur biribilian
Lasterka eghia honen bilhan,
Proba edireiten dut khuian.
Hiritar batek ikhussirik
Khuia hori zoin zen handia.
Hanitz zuelarik zanko mehia
Erran zuen: zer kaskotik
Igaran zaio, zer guzi eghiliari?
Eghiazki, khuia honen
Gaizki eghin dik ezartez hemen.
 Nik, ene fedia,
 Ezarri nikia
Txilinxau haritz hoién
 Adar batetarik.
Bai, holaxet onxa zukia ezarririk;
Xuxenki beita erraiten:
 Nolako arbolia
 Halako fruitia.

Garo, zer damua

Hire ez izatez deithua

Gure aphezak alxatzen duenaren

Konseilluara;

Ordian gauza guziak

Zitukia eghinak

Hobekiago.

Ene txinkerra beno handiago

Ezten zi hau

Zertako txilinxau

Eztu ezarri toki hontan?

Enganio handitan

Izan duk Jaun Gainkoa;

Soghin ghehiago

Eta garoari iduriago

Ziok handi dela enganioa.

Gogo horrek gure ghizonari

Emaiten zerolarik zer ari,

Eztiote loik eghin ghizonek

Nik bezain izpiritu dutenek,

Du erraiten.

Behala da joaiten

Haritz pe batera

Loghitera.

Zi bat gaineti da erorten;
Loghiliaren sudurra joiten.
Garok iratzaririk,
Eskua ahorpeghira eramanik,
Bidarreko bizarretik
Zia du idokiten.
Sudur zapatiak
Kanbirazi zeitzon hitzak.
A! a! erraiten du,

Ene sudurrak odol ixortzen du!!

Zer lizate beraz
Zi hau, benturaz,
Izan baliz khuia
Zuhain hortarik eroria?
Gainkoak eztik nahi izan,
Arrazoin handi beitzian;
Badakiat oraï zeren.
Gainkoa gauza guzietan
Zuelarik laidatzen,
Garo etxerat joan zen.

46

TXIMINOA ETA GATHUA

Beiñat eta Raton, bata tximino
Bestia gathu, ber jaurheghiko
Ekoiliarak, ber nausiaren

lhiziak ziren;

Bai ere gaizki eghilen

Handienak.

Etxean baziren gauzak

Gastatiak,

Aizoer etzaitien eman oghena,

Beiñat beitzen ohoinen hobena;

Ratonek aldiz bere aldetik

Etzion eghin sagu amexik,

Gaznari zelakoz amexez.

Egun batez

Su-xokoan, gure ohoinek haux pian

Erratzen dituzte gazteinak ikhusten.

Haien ebaxtian

Lan hon bat zuten eghinen.

Ikhusten beitzuten probetxu doblia:

Bere hona eta besteren damia.

Beiñatek Rationi dio: behar duk hik,
Anaie, eghin oraï lan eder bat;
Gazteina hoiiek jalk itzak sutik.
Jeinkoak jinerazi banundu lurrerat
Haux-petik

Gazteina idokizale, gazteiner
Eman niok joku eder.

Behala ordian Ratonek eskuez
Poilliki ighiturik su-hauxa,
Bere erhien millikatzez,

Ebaxten du, bat, bi, hirur gazteina.
Beiñatek ditu guziak iresten.

Neskato bat da barnerat jiten:

Adio ene jaunak.

Ratonen gogoak

Ez umen ziren botzak.

Hola hola hanitz alditan,
Txipienak besterenzat lanetan
Ari ghira.

Probexiak noren dira?

Handienen,

Ez txipienen.

ZAPATAINA ETA DIRUDUNA

Zapatain bat goizetik araxera
Kantarrapikotxez ari zen.

Haren ikhustez

Eta enzutez

Handi zen plazera,

Botza beitziren erabilten

Ederki goiti behera.

Zuhurrak baino irusago zen.

Haren aizoak, diruz josiak

Kantu, ez loik etzuen eghiten,

Dirudun ghizon bat beitzen.

Behin ere arghi hastiak

Lo bazeion igorten,

Zapatainaren kantiak

Zuen iratzarerazten.

Gure dirudunak zuen galthatzen

Zeren merkatian loa etzen salzen,

Edaria eta janharria bezalak.

Kantazalia bere jaureghiala

Du jinerazten

Eta galthatzen:

Errazu, ori,

Jaun Gregori,

Urthean zenbat duzu irabazten?

—Urthean! dio zapatainak,

Nik eztit hola kontatzen

Ez eguna egun gainen ezarten;

Aski dit, ene fedia,

Urthe buriaren atzamaitia:

Egun bakoitxak ditazut emaiten

Bere oghia.

—Erradazu beraz,

Zer duzun egunaz

Irabazten?

—Behin ghehixago,

Ghero gutixago.

Min handia, jauna, min handia

(Hori ezpaliz gure irabazia

Lukezu ederki sorthia)

Min handia bai, urthe egunak

Zeren diren laurdenkatiak.

Phestek ghitizie lehertzen

Batek bester oghen dizie eghiten;

Eta bethi gure aphezak

Saindu berri zenbaitez
Kargatzen tizu goiz mezak.
Dirudunak erri eghitez
Zapatainaren hitz hoiez
Erraiten do: nahi zitut egun
Aberatx eghin. Ehun
Lus hoiek hart zatzu,
Behar orduko beghira zatzu.
Zapatainak uste uken zien
Lurrak ehun urthez eman zien
Diru guzia zuela ikhusten.
Bere etxerat da joaiten.
Ezkaratz pian ditu gordatzen
Dirua eta boztarioak.

Adio kantiak:

Guri phena emailiaren

Irabaztian

Botza galdu ziren;

Etxetik loa zeion joan,

Etxeliar jin zeitzon phenak,

Aiherrak eta loxeriak.

Diru beghiratzen cgunaz

Ari zen, eta gauaz

Herotxik gathuek bazuten eghiten,

Dirua zeioten ebasten.
Ghizon gaixoak azkenian
Iratzartzen etzenaren etxera
Joan behar uken zian

Erraitera:

Emadatzu ene kantuak eta loak,
Eta hart zatzu zure lusak.

GHIZON ZAHARRA ETA HIRUR MUTHIL GAZTIAK

Ghizon zahar bat lantatzen,
Lautan-hogoi urthetan ari zen.

—Onxa orano etxe eghitia;

Baina adin hortan lantatzia

Zer erzokeria handia!

Zioten hirur muthil gaztek,

Haren aizo lehenek.

Jeinkoa! zer lan hortarik

Izanen duzu probetxurik?

Aitassoak beno

Zaharrago

Behar-zunuke izan.

Zeren (behar-dugu erran)

Beraz zure bizia

Gherozko lanez da kargatia?

Etzitela orhoit arren

Leheneko lanez baizik;

Utzatzu (onghi duzu eghinen)

Esparanxa luziak

Eta gogo handiak:
Hoiek dituzu guriak.
—Eztira ere zienak,
Erailen de ghizon xaharrak,
Gauza berant jinak
Llaburdu bizia;
Zerentako hilzia
Ziren egunez,
Bai eta ere enez,
Bardin beita txostatzen.
Ziren orena eta enia
Ber thokian dirade egoiten.
Zoin gutarik zeru-arghiez
Azkenik da gozaturen?
Ehor mement batez
Segur deia izaten?
Ene haurren semeñoek
Zor ditazkete itzal hoiek:
Eztuzieia ghizon zuhurra
 Besteren
 Plazeren
Utzi nahi lan ghitera?
Lan honek plazer deit egun eghiten.
Bihar, zenbait aldiz, ni niz gozaturen

Ene lanaz, eta ahal diot arguia
Hanitz aldiz ikhus ziren
Hil-herri zilo gainen.
Zaharrak erran zien eghia:
Hirur muthil hoietarik bata
Itho zen zoelarik Ameriketa;
Bestiak gherlan, aitzindaria
Izan nahiz, galdu zien bizia;
Hirur gharena erori zen
Zahain batetarik
Enpheltatzen ari zelarik.
Zaharrak nigarrez izkiribatu zuen,
Haien kurutze gainean,
Nik hemen dudana erran.

ERZO BAT ETA ZUHUR BAT

Erzo batek harrikalduka
Lasterkatzen zuen zuhur bat.

Honek itzulirik ghibelerat

Erran zeion: adixkidia,

Gauza eder duk eghiten;

Harzak lus hau; ghehiagoren

Irabazteko aski behiz akitzen.

Phena guziek irabazia

Umen die merexitia.

Igaraiten den ghizon hori so eghik;

Phakatzeko dirua badik.

Igor itzok hire dohainak,

Segur ditukek phakatiak.

Irabaziaz killikaturik,

Beste jaunari gure erhoa

Ber ghizan eghitera badoa.

Diruz etzen aldi hontan

Hura phakatia izan.

Muthil batek bertan jinik,

Gure ghizona atzamanik,

Onghi du azkamatzen,
Baita ere zaflatzen.

Erreghen ondoan holako erzoak

Badira, zure kostuz erri
Eghinerazle nausiari.

Hen ixilerazteko mathelak
Direzia hauxiren?

Aski azkar menturaz

Etzinate izanen;

Igor itzatzu beraz

Mendeka ahal daitienari.

50

BI ADIXKIDIAK

Bi adixkide Monomotapan

Bizi ziren;

Bataren gauza orotan

Bestia ere nausi zen.

Herri hartako adixkidiak

Balio, umen tu, gurekoak.

Gau batez bakoitxa lo zelarik,

Ilhum piaz probetxatzia gatik,

Adixkide bata ohetik jauzirik,

Lasterrez lagunaren etxera

Badoa, muthilen jaikiraztera.

Loak etxe hartako atheak

Berekatu zituen.

Oheko adixkidia espantaturik,

Bere bolsa harturik,

Bertan da armatzen

Eta laguna ganat jinik

Derio erraiten:

Etzira hanbat ibiltan

Lo dutenian gendek eghiten;

Eta uste ditzit gizon zirela,
Hobeki igaraiteko loko denbora.

Jokian galdu zinukia

Zure diru guzia?

Ori ene bolsa.

Aharra zenbait izan baduzu,

Onxa;

Hotx, ezpatarekin nuzu.

Ezta, derio adixkidiak

Gauza hoietarik bata ez bestia;

Hortako ori ene eskerrak.

Bena lo ninzalarik

Iduritu zitzaizt pixka bat tristia.

Eghia zela uste ukenik

Lasterrez honat jin nuzu;

Madarikatu amex batek

Ekarri nizu.

Adixkide hetarik zoinek

Hobeki zuen maithatzen?

Irakurzalia, zer zaik iduritzen?

Gauzak balio dik jakitia.

Eghiazko adixkidia

Ala gauza ezta!

Zure beharren ikhertzera

Badoa zure bihotz erdira;

Etzitu zu uzten

Beharraren erraitera.

Amexak, ez deusak dizu loxerazten,

Adixkidia han denian zerbaiten.

A MONSIEUR L'ABBÉ DASSANCE,

VICAIRE-GÉNÉRAL DE MONTPELLIER

Et Chanoine honoraire de Paris

Monsieur L'Abbé,

L'amour que vous professez pour les lettres, et notamment pour tout ce qui est écrit en langue basque, m'engage à vous dédier la traduction, en idiome euskarien, d'un choix de fables de l'un des plus beaux génies de la France.

Le naturel, la simplicité, les graces et l'originalité animent les tableaux de La Fontaine. Si je ne les ai pas défigurés en les copiant, j'espère qu'ils pourront vous plaire.

Votre suffrage, Monsieur l'Abbé, me garantira l'approbation de nos compatriotes, et celle des philologues curieux de scruter les secrets d'un idiome digne, par son antiquité et par sa

conservation mystérieuse, de l'attention des savants.

Je suis avec respect,

Monsieur l'Abbé,

Votre très humble et très
obéissant serviteur.

J.-B. ARCHU.

USKAL HERRIARI

Igorten dautzut, herri maitia,
Ghezurto batzu, hau da eghia,
Zure haurren txostatzeke,
Menturaz hen skolatzeko.

Txostatzia,
Skolatzia
Hanitz alditan
Ber thokietan
Egoten dia.